# Proiektuetarako jarduerak

**LH. Erdi Maila eta Goi Maila. 16 - 20+ urte**

# Gure bideo CV-a sortuko dugu

| | |
|---|---|
|  | **Lanbide-Heziketa**<br>16 - 20 urte |
|  | **Maila**<br>Oinarrizkoa |
|  | **Denboralizazioa**<br>2-3 saio |
|  | **Kideak**<br>2 kide |

## JARDUERAREN DESKRIPZIOA

LH-ko ikastetxeetako ikasleak aurkeztuko dira (espezialitate berdinekoak izan edo ez) edo heziketa-etapa ezberdinetako ikastetxeen artean. Taldeek elkar ezagutu eta gero, ikasle bakoitzak bere bideo curriculuma prestatuko du eta, ondoren, ikaskideek baloratuko dute.

## JARDUERAREN XEDEAK

1. Kide diren ikasleak elkar ezagutzea eta elkarrekin hartu-emana izatea sustatzea.
2. Lana bilatzeko funtzionala eta baliagarria izango den bideo curriculum bat prestatzea.
3. Ikaskideek egindako lanak (bideo curriculumak) enpresen ikuspuntutik baloratzea.

## JARDUERAREN GARAPENA

### 1. Fasea: Prestatzea

*1. Urratsa:*

Dozenteek ikasleak TwinSpace-n erregistratuko dituzte, sartzeko gakoak emango dizkiete eta URL helbidea adieraziko diete: http://twinspace.etwinning.net




**1. Tutorial**erako esteka: **Nola erregistratu ikasleak TwinSpace-n** https://es.slideshare.net/SNA_etwinning/como-registrar-a-alumnos-en-el-twinspace

**2. Urratsa: Ikasleen aurkezpen pertsonala**

Dozenteek kortxo/horma birtual bat sortuko dute lino.it http://en.linoit.com/ edo antzeko bat erabiliz. Kotxoaren izenburua "**Nor gara**?" izango da.

2. Tutorialerako esteka: Lino.it erabiltzeko tutoriala

https://www.youtube.com/watch?v=rFpZq4SC61o

**3. Urratsa:**

Irakasleek Lino it plataforman erabili duten izenburu berdina ("**NOR GARA?**") izango duen jarduera-orri bat irekiko dute TwinSpace-n. Orri horretan kortxo digitala txertatuko da. Ikasleek aurkezpen pertsonal txiki bat egin behar dute honakoak aipatuz: haien izena (gezurrezkoa izan daiteke), adina, Europar Batasuneko zein monumentu bisitatu nahiko luketen eta zergatik. Aurkezpena egin eta gero, ikasle bakoitzak beste lurraldeko ikaskideen aurkezpena komentatu dezake.




**3. Tutorialerako esteka**: Nola sortu jarduera-orri bat TwinSpace-n. [http://etwinning.es/wp-content/uploads/2016/01/C%C3%B3mo-crear-una-p%C3%A1gina-de-actividades-en-el-Twinspace.pdf](http://etwinning.es/wp-content/uploads/2016/01/C%C3%B3mo-crear-una-p%C3%A1gina-de-actividades-en-el-Twinspace.pdf)

**4. Tutorialerako esteka:** Nola txertatu 2.0 tresnak TwinSpace orri batean [http://etwinning.es/es/como-insertar-un-voki-en-una-pagina-del-twinspace/](http://etwinning.es/es/como-insertar-un-voki-en-una-pagina-del-twinspace/)

## 2. Fasea. Praktikan jartzea

**4. Urratsa:** “**Zure bideo-curriculuma sortu aurretik kontuan hartzekoak**” izeneko orrialde berri bat sortuko da TwinSpace-n. **Materialak-Bideoak** atalera bideo bat igoko da lana bilatzeko tresna honen erabilgarritasunari buruz. [https://www.youtube.com/watch?v=TacFbMmHj5M](https://www.youtube.com/watch?v=TacFbMmHj5M)

**4. Tutorialerako esteka**: TwinSpace-ra bideoak nola igo. [https://es.slideshare.net/SNA_etwinning/cmo-subir-vdeos-al-twin-space](https://es.slideshare.net/SNA_etwinning/cmo-subir-vdeos-al-twin-space)




**5. Urratsa:**
“**Zure bideo-curriculuma sortu aurretik kontuan hartzekoak**” orrialdetik abiatuta lehenengo **azpi-orrialdea** sortuko da: “**Bideo-curriculumen adibideak**”. Bertan, bideo-curriculum sortzaileak agertzen dituen bideo bat txertatuko da: [https://www.youtube.com/watch?v=B_2nwowPnEQ](https://www.youtube.com/watch?v=B_2nwowPnEQ)




**6. Urratsa:**

"**Zure bideo-curriculuma sortu aurretik kontuan hartzekoak**" orrialdetik abiatuta bigarren **azpi-orrialdea** sortuko da: "**Zure bideo-curriculuma sortzeko aholkuak**". Bertan, bideoaren filmaketa gidatzeko hainbat aholku erraz emango dira.




**7. Urratsa:**

"**Zure bideo-curriculuma sortu aurretik kontuan hartzekoak**" orrialdetik abiatuta hirugarren **azpi-orrialdea** sortuko da: "**Zure bideo-curriculuma egiteke errubrika**". Bertan, ikaskideen artean jarduera elkarrekin ebaluatzeko erabiliko den errubrika aurkeztuko da. https://drive.google.com/file/d/1ENRv3ZEbKLFo07jqN90PeS1eJdOdriMF/view?usp=sharing




**8. Urratsa:**

Dozenteek Twinmail erabiliko dute (TwinSpace-ko posta elektronikoa) ikaskideak egindako ataza ebaluatzeaz arduratuko diren nazioarteko bikoteak osatzeko koordinatzeko.




**9. Urratsa:**

TwinSpace-n orri barri bat irekiko da: “**Gure bideo-curriculuma**”. Orri honetan dozenteek aurreko puntuaren arabera adostutako nazioarteko bikoteen zerrenda argitaratuko dute. Aldi berean, horma birtual bat sortuko da, https://es.padlet.com edo antzeko bat, orrian txertatzen diren bideo-curriculumak partekatzeko. Ikasle bakoitzak bere bideo-curriculum pertsonala sortuko du, bere mugikorra, tableta edo ordenagailu pertsonala erabiliz, betiere “Zure bideo-curriculuma sortu aurretik kontuan hartu beharrekoak” orriak dioena errespetatuz. Bideo-curriculuma sortu eta gero, hormara igoko du eta bere nazioarteko bikotekidearena komentatuko du iruzkin konstruktiboak eginez.

**5. Tutorialerako esteka**.

Padlet-i buruzko tutoriala. https://www.youtube.com/watch?v=ScFXKzRowZg




**10. Urratsa:**

Ikasle bakoitzak bere nazioarteko bikotekidea baloratu behar du errubrikan finkatuta dauden eta esteka honetan argitaratuta dauden puntuen arabera: https://es.surveymonkey.com/r/Preview/?sm=75sn5sZiJWp_2BtXda0GiQgcSvywoFYJORGRxit0euuN7i2oyD8jwUd6MJHgGnccOp

TwinSpace-n orri berri bat irekiko da: "**Nire ikaskidearen bideoa baloratuko dut**". Bertan, bikotekideen arteko balorazioa egiteko errubrika estekatuko da. https://es.surveymonkey.com/r/Preview/?sm=75sn5sZiJWp_2BtXda0GiQgcSvywoFYJORGRxit0euuN7i2oyD8jwUd6MJHgGnccOp




**11. Urratsa:**

TwinSpace-n azken orrialdea sortuko dugu: "**Gure bideo CV-ak bozkatzea**". Bertan, https://www.tricider.com/ txertatuko da bideo-curriculuma egin duten ikasleen izenekin, lan bakoitza bozkatua izan dadin.

**6. Tutorialerako esteka:**

Tricider-i buruzko tutoriala: https://www.youtube.com/watch?v=alanRYhKln4




## 3. Fasea. Datuak jasotzea, jakitera ematea eta ebaluatzea

### 12. Urratsa:

Dozente kide bakoitzak bere ikasleak ebaluatuko ditu 7. urratsean argitaratu zen errubrika jarraituz (“**ZURE BIDEO-CURRICULUMA SORTU AURRETIK KONTUAN HARTZEKOAK-AZPI-ORRIALDEA-ZURE BIDEO-CURRICULUMA EGITEKO ERRUBRIKA)**”.
https://drive.google.com/file/d/1ENRv3ZEbKLFo07jqN90PeS1eJdOdriMF/view?usp=sharing

## AURREIKUSITAKO PRODUKTUA(K)/EMAITZA(K)

- Horma digitalak, ikasleen aurkezpenak eta haien arteko hartu-emana agertzeko eta bideo-curriculumak partekatzeko erabiltzen direnak.
- Ikasleek egindako bideo-curriculumen aurkezpenak dituzten TwinSpace-ko orriak.

**TWINSPACE-KO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK**

-TwinSpace (foroa, norberaren profila eta proiektuaren Egunerokoa)

-Taulak edo horma digitalak: Lino it http://en.linoit.com/,
Padlet https://es.padlet.com edo antzeko bat.
-Ebaluatzeko tresnak: https://es.surveymonkey.com/
eta https://www.tricider.com/